

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

ilustrazioak IVÁN LANDA

Bazen behin...

8 IPUIN
KONTATZEKO



erein

Bazen behin...



Eskubide guztiak erreserbatuta.

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko martxoan

Azala eta liburuaren diseinua:

Iván Landa

Maketazioa:

Erein

© Toti Martínez de Lezea

© Erein argitaletxea, Donostia

ISBN: 978-84-9109-947-5

L.G.: D 179-2025

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Bazen behin...

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

ilustrazioak IVÁN LANDA

8 ipuin kontatzeko
lurrean eserita,
sofan etzanda,
lo egiteko orduan,
bazkalorduan,
euria egiten duenean...

erein

Bazen behin...

Dragoi urdin bat

Tippi dragoi normalen kobazulo batean jaio zen, alegia, dragoi haiek denak berdinak zirela esan nahi dut, kolorez berdeak, batzuk handiagoak eta lodiagoak, jakina, eta besteak txikiagoak eta meheagoak.

Hasieran, jaio berritan, Tippi ez zitzaion aldea askorik nabaritzen. Baina gero handitzen hasi zen, eta denek ikusi zuten diferentea zela... Urdina zen!

Urdina hodeirik gabeko zerua bezala, urdina mendiko lore bat bezala, urdina pertsona batzuen begiak bezala, urdina... globo urdin bat bezala.

Oso kolore bitxia zen dragoi batentzat, eta hura zelebrekeria bat zela hasi ziren beste dragoikumeak pentsatzen. Inor ez zen berarekin jostatu nahi.





Dragoikumeak ezkutaketan jostatzen ziren, bola bat eginda salto egiten zuten urtegiko uretara, txoriak ikaratzen zituzten, hegan egiten zuten zuhaitz batetik bestera. Futbolean ere ibiltzen ziren, belar lehorrez eta lokatzez egindako baloi batekin. Baina Tippi hurbiltzen zenean, denak kolpetik gelditu eta aparteko biribil bat egiten zuten.

Tippi bakarrik egoten zen beti, eta ez zekien jostatzen.

—Zu ez kezkatu —esaten zioten gurasoek—. Handitzen zarenean, aldatuko zaizu kolorea.

Baina denborak aurrera egiten zuen eta Tippik urdin segitzen zuen. Hala, bada, Txurekin hitz egitera joan zen, hura baitzen dragoi guztietan jakintsuena. Txu dragoi zahar-zahar bat zen, beste dragoiengandik aparte bizi zena bere kobazuloan.

—Gauzak diren bezala dira —esan zion Txu zaharrak Tippi.

—Baina... nik besteak bezalakoa izan nahi dut! —protesta egin zuen Tippi.

—Zergatik? —galdetu zuen Txuk.

—Nik ez dudalako desberdina izan nahi —esan zuen dragoi txikiak.

—Denak gara desberdinak —esan zuen Txuk—. Ez dago bi dragoi berdinik.

—Baina denak berdeak dira, eta ni urdina naiz! —kexatu zen Tippi.



—Kolorea ez da garrantzitsua. Zu zara garrantzitsua.

—Niretzat, kolorea garrantzitsua da! —kexatu zen Tippi berriz ere.

—Dena berdina den mundu bat..., hori oso aspergarria da.

Txu zaharrak begiak itxi zituen, eta lo seko geratu zen.

Tippi desilusio handia hartuta joan zen, dragoi jakintsuak ez baitzion batere lagundu.

—A zer jakintsua, ezer ere ez dakiena! —esan zuen haserre.

Eta erabaki zuen berak bakarrik konponduko zuela arazoa.

Dragoi urdina urtegiko lokatzetan etzan eta iraulka ibili zen, jira eta buelta, eta belarretan gero, ea berdea jartzen zen. Baina ez zen ezer ere gertatu.

Basoko zuhaitzik handienetako historik handienak hartu eta traje bat egin zuen, oso-osorik berdea, baina gainerako dragoiek barre egin zioten, mozerro bat jantzita zebilela ematen zuelako.

Putzu batean sartu zen leporaino, eta sekulako denbora pila pasatu zuen uretatik atera gabe.

«Denbora asko pasatzen duzunean uretan sartuta urdina jartzen baldin bazara —pentsatu zuen Tippik—, niri alderantziz gertatuko zait beharbada, eta ni berde jarriko naiz».

Baina hura ere ez zen ondo atera. Tippik urdin jarraitzen zuen, baina, hori bai, mahats-pasa ximur-ximur bat ematen zuen.





Gau hartan Tippik amets polit bat egin zuen.

Amets egin zuen hegan eta hegan zihoala, zuhaitzen eta mendirik altuenen gainetik zihoala, dragoiez beteriko urruneko leku batera heldu zen arte. Eta denak urdinak ziren! Eta ez hori bakarrik.

Lurra ere urdina zen, eta loreak, eta txoriak ere bai, eta baita urtegietako ura ere.

Hasieran oso zoriontsua sentitzen zen. Beste asko bezalakoa zen. Inork ez zion begiratu arrarorik egiten, eta bere adin bereko beste dragoiekin josta zitekeen. Baina laster hasi zen aspertzen.

Txu jakintsuak arrazoia zeukan. Berdinegia zen dena.

Nola bereizi sagar bat eta laranja bat?

Nola bereizi txantxangorri bat eta enara bat?

Nola bereizi loreak?

Eta zuhaitzak?

Eta udaberria eta udazkena?

Gurasoak faltan ematen zituen gainera.

Faltan ematen zituen bere ez-lagunak ere. Izan ere, pentsatzen hasiz gero, denak berdeak izan arren, berdin-berdinak ere ez ziren.

Kifuk oso hego handiak zeuzkan.

Fukik, haren arreba bikiak, hego txikiak zeuzkan.

Misak puntu beltz bat zeukan kopetan.

Sasa txikia eta potzola zen.

Tokok soinu arraroak egiten zekien.

Eta Rukuri isatsaren punta falta zitzaion, behin, txikitan, koska egin baitzion zomorro bat zela pentsatuta.

Eguzkiaren izpiak kobazuloan sartzen ari zirenean esnatu zen Tippi, eta arnasa hartu zuen, arinduta. Etxean zen berriz ere!

Fruitu gozoak zituen jateko, baina ez zuen gosaldur nahi izan. Lotarako erabiltzen zuen lastoa ere ez zuen txukundu. Eta korrika bizian atera zen kobazulotik.





—Gauza bat egitera! —egin zuen oihu, amak nora zihoan galdetu zionean.

Bakarrik ibili zen ezkutaketan; uretara salto egin eta lasai-lasai eguzkia hartzen zeuden igelak ikaratu zituen; gero, ahateekin hegan joan zen urtegiaren gainetik. Lokatzarekin eta belar lehorrekin pilota bat egin ordez, bera egin zen bola bat, eta, lokatzetan zilipurdika ibiliz, osorik geratu zen marroi-marroia.

Eta barre egin zuen.

Halako barre-algarak bota zituen, non gainerako dragoi txikiek, barreak adituta, zer gertatzen zen ikustera joan baitziren. Pixkana-pixkana, lehenbizi bat, gero beste bat, hurbildu egin zitzaizkion eta azkenean denek bukatu zuten lokatzetan zilipurdika.

—Zein ideia ona izan duen Tippi «urdinak»! —esan zuten denek.

Primeran pasatu zuten, eta zikin-zikin itzuli ziren beren kobazuloetara, leher eginda hainbeste zilipurdi eta hainbeste barrerekin.





—Bazkalondoan, urtegia elkartuko gara berriz!
—oihu egin zuen Fukik, hura baitzen kuadrillako mari-
maistra.

—Ooooooondo! —erantzun zuten beste guztiek.
Beste guztiek, Tippik izan ezik, Tippik ez baitzekien
seguru bera ere gonbidatua ote zegoen.

—Ez ahaztu, Tippi! —oihu egin zuen Fukik berriz ere—.
Urtegia bazkalondoan!

Tippik ia-ia bazkaldu ere ez zuen egin emozioarekin.
Bera ere taldekoa zen orain!

Lagunekin elkartzera urtegia joan baino lehen,
dragoi txikia Txu zaharraren kobazulora igo zen.

—Egin ditut lagunak —esan zion.

Jakintsu zaharrak begiak ireki zituen, itxiak
edukitzen zituen-eta ia beti.

—Oso ondo iruditzen zait —esan zuen.

Eta begiak itxi zituen osterera ere.